



Verdiren
Giovanna d'Arco

Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa.

Zuzendaria:

Yves Abel.

Bilboko Operaren
Abesbatza.

Zuzendaria:

Boris Dujin.

Eszenografia:

Alessandro Camera.

Bakarlariak:

Krassimira Stoyanova

(sopranoa), Alejandro

Roy (tenorea),

Claudio Sgura

(baritonoa). **Lekua:**

Euskalduna Jauregia.

Data: irailaren 21a.

ABAOren denboraldi berria

EUSKAL HERRIKO operazaleok urtero espero dugun momentua iritsi da, ABAOren denboraldiaren estreinaldia, hain zuzen ere. 62. urteurrena ospatzen duen elkarte kultural honek, hain errotuta gure musikazaleen artean, mantentzen ditu bere ilusioa eta indarra, nahiz eta krisiaren ondorioak sufritu. Institutio publikoen dirulaguntzak ia-ia pikutara joan dira, baina urtean barrena eskaintzen diren zazpi tituluak hortxe ditugu aurten ere. Eskertzen da ABAOtik egiten den ahalegina, kontuan hartuta zein aukera gutxi ditugun operaz disfrutatzeke. Beraz, segi aurrera!

Denboraldi atsegina eta nahiko osoa espero dugu, nahiz eta pittin bat erraza ere baden. Erraza, ausardia pixka bat falta izan zaielako hain ezagunak ez diren lanak aurkezteko edo benetako musika garaikidea programatzeko. XX. mendeko opera bat entzungo dugu: *Adriana Lecouvreur*, Francesco Cilearena, baina, 1902. urtean estreinatutako opera hau ezin da lan apurtzailatzat hartu. Halere, esan bezala, titulu ederak izango ditugu: Belliniren *I Puritani*, Bizet-en *Carmen* eta Puccini-ren *Turandot*.

Bestalde, Verdik protagonismo berezia izango du aurten: alde batetik, konpositorearen jaiotzaren 200. urteurrena ospatzen delako, eta, bestetik, ABAOren *Tutto Verdi* izeneko proiektuak, orain dela zortzi urte hasitakoak, bere ibilbidea jarraitzen duelako. Gauzak horrela, Verdiren hiru lan programatu dira: gaztetan egindako *Giovanna d'Arco*, *Rigoletto*, hain ezaguna den maisulana, eta zahartzaroan egindako *La forza del destino* obra.

Denboraldiaren lehenengo titulua *Giovanna d'Arco* izan da. Gazi-gozoa. Ez da Verdiren lan distiratsuen, baina badu maisuaren tankera melodiko berezia, eta pertsonaiak ondo diseinatuta daude. Schiller-en *Die Jungfrau von Orleans* (Orleanseko neskatoa) nobelan oinarritzen den libretoan pertsonaiaren alde heroikoa eta irudi erromantikoa nahastu dira istorio interesgarria garatuz. Emanaldiaren onena: eszenografia, Alessandro Camerarena; argiztapen zoragarria, Andrea Borellirena, eta Euskadiko Orkestraren aktuazioa, Yves Abel zuzendariaren batutapean, beti fina, doia, ahotsak ongi nabarmentzen direla.

Protagonistak izen ziren huts egin zigutenak, nolabait. Krassimira Stoyanova soprano bulgariarrak, Giovannaren rolean, ahots fina eta malgua luzitu zuen, baina ez zuen adierazi pertsonaiak behar duen adorea, plano gertatu baitzen bere interpretazioa. Nortasuna handiagoa erakutsi zuen Alejandro Roy tenore asturiarrak. Sinesgarria izan zen bere interpretazioa Carlo VII. erregearen papean, eta posibilitate handiko ahotsa erakutsi zuen. Baina guztien artean, nire ustez, Claudio Sgura baritono italiarraren interpretazioa izan zen onena. Ahots segurua du abeslariak, eta aldi berean adierazkorra eta ñabarduraz betea. Gure artean aritu den lehenengo aldia zuen, eta espero dugu gehiagotan entzutea. ■

**Montserrat Auzmendi
del Solar**

